

Bere Maiestatearen Gabonetako mezua

Zarzuela jauregia. Madril, 2014 ko abenduak 24

Gabon.

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizuet zuen etxeetako ateak zabaltzeagatik Eguberri hauetan. Gertutasuna eta berriz elkartzeko unea da bereziki; elkarrengana hurbiltzeko unea, gogoz eta elkar ulertzeko nahiaz elkarri begiratzeko, gure inguruko pertsonei maitasun, bake eta poztasun handiena helarazteko.

Gaur, zuen alboan izan nahi dut —zuentzako egin dudan lehenengo Gabonetako mezu honetan— etorkizunari buruzko hausnarketa bat egiteko, begirada eta konfiantza 2015. urtean ipinita.

Garai konplexuak eta zailak dira herritar askorentzako eta Espainiarako, oro har. Krisialdi ekonomiko gogor eta luze honek ziurgabetasunean murgilarazten ditu familia ugari; gure arazo politiko batzuk duten garrantziak ezinegona eragiten du; eta zerbitzari publiko batek izan beharko lukeenez bestelako jarrera duenean, arrazoi guztiz, haserrea eta desengainua sortzen da.

Azaldu ditudan arazoek gizarte-kezka handia piztu dute. Hala ere, ezin gaituzte pesimismoak, gizarte-ondoezak edo adore faltak gainditu; tinko eta eraginkor egin behar zaie aurre arazo horien zergatiei, horiek guztiak konpondu behar ditugu, eta gurea bezalako gizarte demokratiko batek behar eta merezi duen sosegu eta lasaitasuna berreskuratu behar da.

Pasa den urrian Asturiasen berretsi nuen miretsi beharreko erreferentzia moralak behar genituela, aintzatetsi beharreko printzipio etikoak, gorde beharreko herritarren balioak. Esan nuen, baita ere, bultzada moral kolektibo izugarri bat behar genuela. Oraingoan, berriz, gehitu nahiko nuke gure bizi kolektiboa berriz sortu behar dugula errotik. Eta horretarako ezin dugu atzean utzi ustelkeriaren aurkako borroka.

Egia da bidegabeko jarrera horien arduradunak kalteen erantzule izaten ari direla; horra hor gure Zuzenbidezko Estatuak funtzionatzen duela erakusten duen froga. Egia da baita ere zerbitzari publiko gehienek, ostera, zintzotasunez eta guztien interesak asebetetzeko gogoz egiten dutela lan.

Baina beharrezkoa da —baita ere eta batik bat— jarrera horiek ekiditea, gure gizartean erroak bota eta etorkizunean ugaltu daitezkeelako. Herritarrek ziur jakin behar dute legez aurreikusten diren helburuetarako erabiltzen dela diru publikoa; inoren mesederako traturik ezin dela egon erantzukizun publiko bat izateagatik; kargu publikoa ez dela izan behar probetxua atera eta aberasteko bidea; munduan dugun ospea eta izen ona ez dela zikinduko.

Gai hau bezalako beste gutxik sortzen dute iritzi hain bateratua. Errotik eta azkar akabatu behar da ustelkeriarekin. Zerbitzu publikoen zintzotasuna oinarrizko ardatza da guztiok izan nahi dugun Espainia osasuntsu eta garbi batean elkarrekin bizitzeko.

Egoera ekonomikoaz ere hitz egin nahi dizuet, guztion kezka larria izaten jarraitzen du eta. Langabezia-indizeek onartezinak izaten jarraitzen dute, eta gure gazteen eta langabezia luze daramaten gizon eta emakume askoren itxaropenak zapuzten dituzte. Egia da mundu osoko sektore askotan puntako enpresak ditugula, baina hala eta guztiz ere, gure ekonomia oraindik ez da gai izan oinarrien desorekarekin behin betiko amaitzeko.

Hala ere bada benetan bestelakorik —eta oso positiboa da—, izan ere makroekonomia nagusiak hobetzen ari dira, eta hazkuntza ekonomiko eta enpleguaren sorkuntza berreskuratu dugu. Datu horiek oinarri berria dira, etorkizunean, enplegu askoz gehiago eta, batik bat, kalitate hobekoa modu iraunkorrean sortzeko itxaropenari eutsi ahal izateko.

Bistan da, beraz, langabeziaren aurkako borrokak gure lehentasun handia izaten jarraitu behar duela. Herritar guztiek krisialdi ekonomiko osoan zehar egin duten sakrifizio eta ahaleginek merezi dute politika-, ekonomia- eta gizarte-eragileek norabide honetan etengabe lan egitea, herritarren interesa izan behar baita lehentasuna; ekonomia beti pertsonen zerbitzura egon behar delako.

Horregatik, pertsona kaltebera eta ahulenak babestu behar dira bereziki. Eta horretarako bermatzen jarraitu behar dugu gure Ongizate Estatua, krisi-urte hauetan zehar gure gizartearen kohesiorako euskarri izan dena, familiekin eta elkarte eta mugimendu solidarioekin batera. Benetan harro egoteko zerbait da.

Kataluniak gaur egun bizi duen egoerari buruz ere mintzatu nahiko nuke.

Espainiako herriak, subiranotasun nazionala oinarri, erreferendum bidez berretsi zuen 1978ko Konstituzioa; batasun historiko eta politikoa aldarrikatu zen eta guztien eskubidea onartu zen norberak bere pertsonalitatea, kultura, tradizioa, hizkuntza eta instituzioa sentitu eta hala errespetatuak izateko.

Konstituzioaren espirituarekin bizi izan gara elkarrekin urte hauetan zehar. Espainiako Erkidego bakoitzak, herri bakoitzak eta lurralde bakoitzak onena eskaini du guztien mesederako. Eta zalantzarik gabe, Kataluniak Espainia osoaren egonkortasun politikoan eta aurrerapen ekonomikoan lagundu du.

Bistan da guztiok dugula elkarren beharra. Enbor berekoak gara, bata bestearekin bateragarriak, baina ezinbestekoak ere bai norberaren aurrerabiderako bereziki eta guztienerako oro har.

Ez da ekonomia edo interesen kontua soilik ordea; sentimenduek ere, eta bereziki, zerikusia dute.

Milioika espainiarrek bihotzean daramate, daramagu Katalunia. Era berean, milioika katalanentzako ere euren arimaren zati dira gainerako espainiarrak. Horregatik mintzen eta kezkatzen naute emozio-hausturek, nahitasun ezak edo errefusak familien, lagunaren edo herritarren artean. Gaur egun Espainian ez da inor inoren aurkari.

Eta Espainia indar paregabeko nazio bada, gure artean ditugun desberdintasunei zor diegu; horiek guztiak ulertu eta errespetatu behar ditugu, beti elkar gerturatuko gaituzte eta, inoiz urrundu. Izan ere, guztiok batera lortu dugun hori batasunaren indarretik sortzen da. Eta batasun horren indarrari esker joan ahal izango gara urrutirago eta erosoago gizartearen ahultasuna edo banaketa onartzen ez duen mundu batera, gizarteratze handiagoa bide.

Desadostasunak ez dira haustura emozional edo sentimentalekin konpontzen. Egin dezagun guztiok ahalegin leial eta zintzoa, eta berreskura dezagun galdu ezin dugun hori: elkarren arteko maitasuna eta partekatzen ditugun sentimenduak. Errespeta dezagun Konstituzioa, elkarbizitza demokratiko, txukun, baketsu eta aske baten bermea baita. Eta jarrai dezagun elkarrekin eraikitzen gure pluraltasuna errespetatzen duen eta etorkizunean ilusioa eta konfiantza sortuko duen proiektu bat.

Ilusioa eta konfiantza ere behar ditugu eta.

Pasa den ekainean, Espainia seriotasun eta duintasunaren adibide izan zen bere bururako eta mundu osorako nire aita Juan Carlos Erregeak abdikatu eta Errege izendatu zidanean; hori guztia Konstituzioari jarraiki egin zen. Eta azken hilabete hauetan zuen errespetuaz, estimuaz eta maitasunaz inguratu nauzue. Egia esan, maitatua eta preziatua sentitu naiz, eta bihotzez eskertzen dizuet. Eta esan beharrean nago baita ere ilusioa ikusi dudala zuetako askorengan, zuen begiradetan eta hitzetan, gure historian hasi berri den garai honekiko.

Egia da garai konplexuak eta zailak bizi ditugula. Ez dago zalantzarik. Baina aurre egin behar diegu, erantzukizuna, ilusioa eta espiritu berritzailea esku. Gure bizi kolektibo eta indibidualaren alor guztietan islatzen diren garai berriak dira. Eta orain gaurko espainiarroi dagokigu etorkizun onena ereiteko lanarekin jarraitzea; hemen dugu eta etorkizuna, hasi da.

Zorionez, ez dugu hutsetik abiatu behar, inondik ere ez, eta, horregatik, ez dugu ahaztu behar guztiok batera belaunaldiz belaunaldi lortu dugun hori ahalegin eta sakrifizio izugarritz; asko da, eta harro balioetsi behar dugu.

Hala ere, gure erantzukizuna da akatsak zuzentzea eta hobetzea eta gaur egungo Espainiaren aktiboak areagotzea, espainiar guztiona den etorkizunari begira.

Demokrazia sendoa gara. Historian inoiz bizi izan dugun egonkortasun politikoa daukagu. Gure Konstituzio-esparruari esker, politika txandatu egin da hauteskunde libre eta demokratikoak bide. Gainera, munduan errespetatu eta preziatzen gaituzten nazioa gara, eta izugarritzko bokazio unibertsala dugu, ezinbestekoa mundu osoan gure kultura sustatzeko eta gure interesak defendatzeko. Gaur, inoiz baino gehiago, Europako proiektu baten oinarritzko kide gara, eta horrek indartsuagoak, lehiakorragoak eta garrantzitsuagoak egiten gaitu gizarteratutako etorkizun batean.

Errege-izendapenean egin nuen hitzaldian adierazi nuen moduan, garai politiko orok ditu bere erronkak. Gure elkarbizitza politikoan aurrera egin behar dugu pausoz pauso, eta dagozkigun garaietako beharretara egokitu politika hori. Gure gizarte demokratikoaren funtzionamendua eguneratu behar dugu, eta herritarrek instituzioenganako konfiantza berreskuraraztea lortu behar da. Indarrez eta bizitasunez jarduten duten erakundeenganakoa, norberarenak baliran.

Ez dut amaitu nahi mezu itxaropentsu bat helarazi gabe.

Gure erronka nagusiak dira, hortaz, bizi politikoa birsortzea, herritarrek instituzioenganako konfiantza berreskuratzea, gure Ongizate Estatua bermatzea eta pluraltasuna oinarri batasuna gordetzea. Ez da lan xumea. Ez dira erronka errazak. Baina gainditu egingo ditugu, zalantzarik gabe; ziur nago. Soberan dugu eta gaitasuna eta adorea. Nahia eta gogoia ere baditugu. Baita gureganako konfiantza eta segurtasuna ere.

Hori da gure itxaropenaren ardatza etorkizunean. Gure kontzientzia nazionalaren harrotasuna berreskuratzeko ardatza: Espainia modernoa, uste demokratiko osoena, anitza, munduari irekia, solidarioa, ahaltzua, kemena duena. Alboan izango ditugu, bada, kemen hori eta egunerokotasunari aurre egiterakoan zareten ereduak, aurrera egin eta zuen eta familien bizitza behar bezala hobetzen saiatzerakoan topatzen dituzuen zailtasunen aurka borrokatzen duzuelako.

Eskerrik asko berriz ere gau honetan nire hitzak entzuteagatik eta zorionak Erreginaren, Asturiasko Printzesaren eta Infanta Sofiaren eskutik.

Eguberri on, Feliz Navidad, Bon Nadal, Boas Festas.